

ERABAKIA, 2021eko AZAROAREN 12koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, DOKTOREGOKO MUGIKORTASUN PLAZA BITARAKO DEIA EGITEKO DENA (PLAZA BATEK ERASMUS+ ICM 2020 FINANTZIAZIOA DU), PARTE HARTZEKO JAPONIAKO "TOKYO INSTITUTE OF TECHNOLOGY" ERAKUNDEAREN "SUMMER EXCHANGE RESEARCH PROGRAM - SERP" PROGRAMAN 2022. URTEAN

2021eko maiatzaren 10ean bi hitzarmen sinatu ziren Japoniako "Tokyo Institute of Technology" erakundearekin (aurrerantzean, TOKYO TECH):

- Aldebiko truke hitzarmen bat, UPV/EHUko ikasleek parte har dezaten TOKYO TEChen "Summer Exchange Research Program"¹ programan (aurrerantzean SERP).
- Erasmus+ ICM hitzarmen bat, Erasmus+ 2014-2020 aldiko Programako 2020ko deialdian UPV/EHUK Japoniarako lortu duen proiektuaren barruan, SERP 2022n parte hartuko duen UPV/EHUko ikasleetako bati finantziazioa emateko aurrekontu kreditua duena.

2022ko udan SERP programan parte hartuko duten ikasleen berri 2022. urtearen hasieran eman behar dionez UPV/EHUK TOKYO TECheri, mugikortasun horietan parte hartuko duten bi doktoregaiak aukeratu behar ditu unibertsitateak.

Esandako guztiagatik, UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiaren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz (2021eko otsailaren 12ko EHAA, 31. zk.), TOKYO TEChekin 2021. urtean egin ziren bi hitzarmenen arabera, Erasmus+ programako herrialdeen eta herrialde elkartuen arteko mugikortasun proiektua kudeatzeko SEPIEk eta UPV/EHUK 2020an sinatu zuten hitzarmenaren babesean, eta horretarako aurrekontu krediturik badagoenez, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- 2022an TOKYO TEChen "Summer Exchange Research Program" programaren barruan doktoregoko egonaldi bat egiteko bi plazetarako deia egitea, ondoren jasotzen diren oinarrien arabera: a) Erasmus+ ICM mugikortasun plaza bat, Erasmus+ funtsekin; eta, b) mugikortasun plaza bat, deialdi horrek finantzatuko ez duena.

Bigarrena.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Hala ere, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal zaio Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUren

¹ SERP udako programari buruzko informazioa (2022. urtekoa oraindik eguneratu gabe, UPV/EHU agertu behar da): <http://www.eng3.e.titech.ac.jp/~inter/inter-e-serp.html>

webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak dioen moduan (123. eta 124. artikulua); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioen moduan (8.3 eta 46.1 artikulua).

Leioa, 2021eko azaroaren 12a

Maria Juncal Gutiérrez Mangado

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea

**DOKTOREGOKO MUGIKORTASUN PLAZA BI ESLEITZEKO DEIALDIAREN
OINARRIAK (PLAZA BATEK ERASMUS+ ICM 2020 FINANTZIAZIOA DU), PARTE
HARTZEKO JAPONIAKO "TOKYO INSTITUTE OF TECHNOLOGY"
ERAKUNDEAREN "SUMMER EXCHANGE RESEARCH PROGRAM - SERP"
PROGRAMAN 2022. URTEAN**

NORENTZAT:

DOKTOREGO PROGRAMAK: a) Ingeniaritza Mekanikoa, eta b) Kontrol Ingeniaritza, Automatizazioa eta Robotika

IKERKETA LERROAK: a) Robotika eta b) Manipulagailuen diseinua

1- HELBURUA

Deialdi honen helburua da aukeratzea 2022an "Tokyo Institute of Technology" erakundearen (aurrerantzean TOKYO TECH) "Summer Exchange Research Program" programan parte hartuko duten UPV/EHUko bi doktoregaiak.

a) doktoregai bat Erasmus+ ICM funtsekin, TOKYO TECHekin egindako Erasmus+ ICM hitzarmenaren eta Erasmus+ ICM 2020 proiektua kudeatzeko SEPIErekin egindako hitzarmenaren babesean; eta

b) doktoregai bat finantziazio gabe, SERP dela-eta TOKYO TECHekin egindako aldebiko hitzarmenaren babesean.

Eskaintzen den mugikortasuna erakunde honetarako da: TOKYO INSTITUTE OF TECHNOLOGY, TOKYO TECH, Japonia.

Egonaldia egin beharko da TOKYO TECHen 2022. urteko "Summer Exchange Research Program" programan zehaztuko diren datetan (oraindik argitaratu gabe). Egonaldia, seguruenez, lau datatan hasi ahalko da: 2022ko ekainaren lean, uztailaren lean, abuztuaren lean eta irailaren lean.

Egonaldia, oro har, hiru hilabetekoa izango da (90 egun). TOKYO TECH eta UPV/EHU ados egonez gero, eta doktoregaiak beharrezko urrats administratibo guztiak egiten baditu bai TOKYO TECHen bai UPV/EHUn, egonaldia bost hilabetekoa izan ahalko da.

2- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Doktoregaiak Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du edo bizi den herrialdean izan beharko da errefuxiatua, herrigabea, egoiliar iraunkorra, edo aldi baterako egoiliarra (mugikortasunak dirauen artean egoitza baimena daukana edo mugikortasunak dirauen artean ikasketak egiteko egoitza baimena daukana), izaera hori kasuan kasuko herrialdeko legeriaren arabera aitortua izanik.

2.2.- Mugikortasuna eskatzean eta mugikortasuna egitean matrikulatuta egon beharko da UPV/EHUren **Ingeniaritza Mekanikoa** doktorego programan edo **Kontrol Ingeniaritza, Automatizazioa eta Robotika** doktorego programan, baina lehen programako ikasleek (Ingeniaritza Mekanikoa) lehentasuna izango dute plaza bietarako.

2.3.- TOKYO TECHen egingo den ikerketak zerikusia izan beharko du lerro hauetakoren batekin: a) **Robotika eta b) Manipulagailuen diseinua.**

2.4.- **Ingelesa** jakitea, **gutxienez B2 maila**².

3- MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO MUGAK

3.1.- **Ikasturte bakoitzean mugikortasun bat** besterik ezin da egin (**egonaldi jarraitu bakarra**).

3.2.- Egonaldia, oro har, hiru hilabetekoa izango da. TOKYO TECHek doktoregaia onartzen duen datetan hasi ahal izango dira mugikortasunak (2022ko ekainaren 1etik irailaren 1era bitartean), eta ohiko moduan jarraitu hiru hilabetez. Egonaldiok beste bi hilabetez luzatu ahal izango dira. Doktoregai bakoitzak gehienez ere bost hilabeteko egonaldia egin ahal izango du deialdi honen babesean emandako mugikortasunen barruan.

3.3.- Erasmus+ mugikortasunaren barruan 12 hilabeteko egonaldia egin daiteke gehienera doktorego osoan zehar. Doktoregaiak ikasturte berean egin ahal izango ditu ikasketak egiteko Erasmus mugikortasuna eta praktikak egiteko Erasmus mugikortasuna.

3.4.- Hiru hilabetetik gorako egonaldia egin nahi duen doktoregaiak TOKYO TECHen baimena lortu beharko du hiru hilabetetik gorako egonaldirako.

3.5.- Egonaldiak 2022ko urriaren 1etik aurrera luzatzen badira, 2022/2023 ikasturterako matrikularen agiria eta 2022/2023 ikasturteari dagokion aldirako aseguruaren estalduraren froga bidali beharko dituzte parte hartzaileek Doktorego Eskolara (Nazioarteko Harremanetako teknikariaren izenean).

² B2, ondoren aipatzen diren tituluetakoren baten arabera:

<http://acreditacion.crue.org/Documentos%20compartidos/Certificados%20para%20la%20acreditaci%20de%20niveles%20de%20inglés.pdf>

4.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea **2021eko azaroaren 13tik abenduaren 5era** artekoa izango da.

4.2.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, eskaera eta dokumentuak ezarritako epearen barruan aurkeztu behar dira, ahal den guztietan **UPV/EHUko erregistro elektronikoen bitartez**: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean **BESTE ZERBITZU BATZUK / Doktorego Eskola** aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: a) Izenperen ziurtagiri digitala; b) UPV/EHUren txartela (Izenpe); c) NAN elektronikoa; edo, d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, beste toki hauetan ere aurkeztu ahal izango da eskaera: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoen; b) erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren edo sektore publikoko edozein erakunderen bulegoetan, aurrez aurre, funtzionario publiko gaituaren bidez; c) posta bulegoetan; eta, d) Espainiak atzerrian dituen ordezkari-tza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurrez aurre aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoen sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

4.3.- Eskaera helbide honetan jaso behar da:

**Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
Doktorego Eskola (Nazioarteko Harremanetako teknikaria)**

(Doktoregorako Erasmus + deialdia)

Bibliotekaren eraikina, 1. solairua

Sarriena auzoa z/g.

48940 Leioa-Bizkaia (Tel: 946018354)

4.4.- Dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

1. Eskaera inprimakia (deialdi honekin batera Nazioarteko Harremanen webgunean dagoen dokumentua: "eskaera inprimakia").

2. Indarrean dagoen NAN edo AIZaren fotokopia.
3. Hizkuntzen jakite maila egiaztatzen duten agiri ofizialen fotokopiak.
4. Doktoregoan sartzeko aukera eman dioten gradu eta masterretako espediente akademikoaren kopia.
5. 2021/2022 ikasturtean doktoregorako egindako matrikularen agiria.
6. Curriculum vitae ingelesez, honako hauek adierazita: nazionalitatea, ikaslearen doktorego programa, eta parte hartzen duen ikertaldea, halakorik egonez gero.
7. TOKYO TECHen egingo duen ikerketa azalduko duen memoria ingelesez, interesatuak eta doktoregaia matrikulatuta dagoen doktorego programako koordinatzaileak izenpetua.

5- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

5.1.- Nazioarteko mugikortasun eskaera egitekorakoan bigarren oinarrian aipatzen diren doktorego programa bietako batean izena emanda dauden doktoregai guztiak hartuko dira plaza hauetarako hautagaitzat, baldin eta TOKYO TECHen egin nahi duten ikerketa gorago adierazitako bi lerroetako batean planteatzen badute eta egiaztatuta badute gutxienez B2 maila ingelesez.

5.2.- Hautaketarako oinarria merezimendu akademikoa izango da. Horretarako, kontuan hartuko da mugikortasun deialdiko hautaketa egiten denean ikasle bakoitzak aurkeztu duen batez besteko nota, doktoregora sartzeko aukera ematen duten gradu eta masterretakoa. Kontuan hartuko dira, baita ere, honako hauek: eskaerarekin batera aurkeztu beharreko memoria, ingelesaren jakite maila egiaztatua, eta egoki jotzen diren bestelako merezimenduak. Berdinketarik gertatuz gero, lehentasuna izango dute Eusko Jaurlaritzaren eta/edo kasuan kasuko ministerioaren beka orokorra dutenek.

5.3.- Puntu gehien lortuko dituen doktoregaiari esleituko zaio Erasmus+ ICM finantziarioa duen plaza, zortzigarren oinarrian adierazten den moduan. Laguntza hori bateragarria izango da doktoregaiak lor ditzakeen beste batzuekin.

Bigarren lekuan geratuko den doktoregaiak ez du jasoko finantziariorik deialdi honen barruan, eta beste iturri batzuetatik lortu ahal izango ditu bidaia egiteko baliabide ekonomikoak.

6- BALORAZIO BATZORDEA

Balorazio Batzordea honako hauek osatuko dute. Bilboko Ingeniaritza Eskolako zuzendariak izendatutako pertsona batek eta Doktorego Eskolako Nazioartekotze Batzordeak. Balorazio Batzordea harremanetan jarri ahalko da TOKYO TECHekin, hautagaiei buruz duen iritzia jakiteko.

7- ERABAKIA

Deialdia esleitzeko erabakia Nazioarteko Harremanen webgunean emango da argitara (Erasmus+ herrialde elkartuak).

8- ERASMUS+ ICM BEKADUNAREN LAGUNTZA EKONOMIKOA

Bekadunak 700 euro jasoko ditu hilean, gehienez ere bost hilabeteetan. Gainera 1.500 euro emango zaizkio bidaia gastuetarako.

CERTIFICATE OF ATTENDANCE delakoaren datak hartuko dira kontuan egonaldian benetan emandako hilabeteak egiaztatzeke eta, hala badagokio, UPV/EHUko Nazioarteko Harremanen Bulegoak ikasleari eskatzeko egiaztatu gabeko egunengatik jasotako dirua itzul dezan.

9- MUGIKORTASUNEN IKASLEEN BETEBEHARRAK

9.1.- Hautatuko diren bi doktoregaiak UPV/EHUren arautegia errespetatu beharko dute, bai eta atzerriko unibertsitatearena ere bertan dauden bitartean. Bestalde, ERASMUS+ mugikortasun bekaren onuradunak ERASMUS ikasle gutunean ezarritako eskubideak eta betebeharrak ditu.

9.2.- Doktoregaiaren erantzukizuna da atzerriko unibertsitatean sartzeko kudeaketak egitea.. Adi egon beharko da jakiteko zeintzuk diren TOKYO TEChEk ezarritako epeak eskaerak aurkezteko SERP 2022 udako programan onartua izateko (2022ko otsailetik aurrera).

Halaber, ikaslearen ardura izango da bere egonaldirako ostaturia gestionatzea.

Doktoregaiak ez du tasarik ordaindu beharko atzerriko unibertsitatean, jatorriko unibertsitatean ordainduko baititu. Hala eta guztiz, atzerriko unibertsitateak diru kopuru txikiren bat eskatu ahal izango dio doktoregaiari zenbait gastutarako, hala nola aseguruak, ikasleen sindikatuaren afiliatzeko edo materialerako (fotokopiak, laborategiko produktuak eta abar), baina bertako doktoregaiaren baldintza berberetan. Gomendatzen da begiratzea aseguruari buruzko informazioa SERP 2022 deialdian ("Insurance").

9.3.- Hautatuko den ikasleak, bidaiatu aurretik, **Learning Agreement for Doctoral Studies** izapidetu beharko du bere tesi zuzendariarekin eta Tokyo Techeko egonaldia gainbegiratuko duen pertsonarekin. Bertan jasoko da zeintzuk diren atzerriko unibertsitatean egingo diren jarduerak. Agiria hori loteslea izan dadin, ikaslearen sinadura eta bi unibertsitateetako ordezkarien sinadura baimenduak izan beharko ditu.

Erasmus+ ICM beka izango duen doktoregaiaren kasuan *Learning Agreement* agiriak Erasmus+ programaren formatua izan beharko du.

9.4.- Errendimendu ona egiaztatu beharko da atzerriko unibertsitatean.

9.5.- Ikaslea ezarritako egunean hasiko da atzerriko ikastegian. Hala egiten ez badu, mugikortasunari uko egin diola ulertuko da. Berehala eman beharko zaie egoera horren berri Doktorego Eskolari eta Nazioarteko Harremanen Bulegoari. Izan ere, jakinarazi ezean, ikaslea baztertuta geratuko da UPV/EHUko mugikortasun programen hurrengo deialditik Egonaldiaren iraupena aldatu ahal izateko, oniritzia eman beharko dute TOKYO TEChEk, UPV/EHUko Nazioarteko Harremanen Bulegoak eta Doktorego Eskolako koordinatzaileak, eskariaren arrazoiak aztertu eta gero Oniritzirik gabe aurrera eginez gero, 9.11 atalean aipatzen dena aplikatuko zaio doktoregaiari.

9.6.- Atzerriko unibertsitateira iritsi aurretik, **aseguru pribatu bat** egin beharko da, bere baitan hartuko dituen istripuak, arreta eta garraio medikoa eta interesatua aberriratzea, egonaldi OSOAN gerta daitezkeen gorabeheretarako.

9.7.- Erasmus ICM bekadunaren kasuan, mugikortasuna egin aurretik aurkeztu beharko dira Nazioarteko Harremanen Bulegoak helarazitako **Erasmus+ dirulaguntzarako hitzarmenaren** kopia sinatua eta aseguruaren kopia.

9.8.- Interesatuak egiaztatu egin beharko du egonaldia benetan egin izana eta haren iraupena. Horretarako, egonaldia hasi edo bukatu eta gehienez hilabetera, kasuaren arabera, egonaldiaren hasierako agiria (*Certificate of arrival*) eta amaierako agiria (*Certificate of Attendance*) aurkeztu beharko ditu, atzerriko unibertsitateak izenpetuta eta zigilua ezarrita.

9.9.- Atzerrira joan aurretik, bisatua lortzeko izapideak egin beharko ditu bekadunak, herrialdeak halakorik eskatzen badu, bai eta atzerriko unibertsitatean hasi ondoren herrialdean egoteko beharrezkoak izan daitezkeen bestelako tramite administratiboak ere. Nazioarteko Harremanen Bulegoak ez du izango erantzukizunik ikasleak mugikortasuna galtzen badu tramite pertsonal horiek ez egiteagatik.

9.10.- Egonaldia adierazitako hilabeteak baino gehiago luzatzea eskatuz gero, koordinatzaileen baimena izan beharko da (jatorriko nahiz atzerriko unibertsitatekoena). Egonaldia luzatuko da baldin eta Learning Agreement agirian egin beharreko aldaketak egiten badira eta aseguru medikoaren indarraldia luzatu dela dioen agiriaren kopia aurkezten bada. Luzapena ez da izango, inolaz ere, automatikoa, eta ez du berez ekarriko luzapeneko hilabeteetarako dirulaguntza jasotzeko eskubiderik, horretarako aurrekonturik ez badago.

9.11.- Aipatutako betebeharrak justifikaziorik gabe ez betetzeak ondorio hauek izan ditzake, kasuan kasu: Erasmus+ beka ezeztatzea, ikasketa kontratua etetea, Erasmus+ dirulaguntzarako hitzarmena ezeztatzea (eta, ondorioz, doktoregaiak jasotako dirulaguntza guztiak itzuli behar izatea), eta doktoregaia baztertzea errektoreordetza honek gerora bultza ditzakeen mugikortasun programetako hautaketa prozesu guztietatik.

9.12.- Aurreko atalean (9.11) aipatzen den dirulaguntza itzultzen ez bada (batere edo ez bere osoan), doktoregaiak, dirua itzultzen ez duen bitartean, ezingo du egin beste matrikularik, eta ez zaio emango titulu edo kalifikaziorik, ezta ere espediente akademikoari buruzko informazio oharrik. Era berean, doktoregaiak ezin izango ditu UPV/EHUren gainerako zerbitzuak erabili.

10- INFORMAZIO OSAGARRIA

Deialdi honi buruz informazio gehiago behar izanez gero, edota TOKYO TEChekin harremanetan jarri nahi izanez gero, idatzi pc.international@ehu.eus helbidera edo deitu 943015127 telefonora.